

EH BILDUK DEBAGOIENAKO OSPITAL ONDOKO "PUTZUARI" BURUZ INFORMAZIO ESKAERA EGIN DIO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILARI

Arrasateko EH BILDU-k aspaldian salatu du Zerrajera eta Txaeta kaleen artean den orubeko putzuaren egoera. Putzua, hasi eta amaitu gabeko eraikuntza lanen eta lurrazpitik filtraturiko uren ondorioa da eta lurzorua jabea Eusko Jaurlaritza denez, berarekiko asmo eta epeei buruz informazioa eskatu dugu.

Historia apur bat eginez, 90. hamarkadan Union Cerrajera enpresa historikoa birmoldatu zenetik enpresa kokaturik zegoen lurrei beste erabilera bat emateko prozesua hasi zen herrian, bidean moldaketak izan dituen prozesu luzea. Lur horien jabetza Eusko Jaurlaritza eta Arrasateko Udalarena izan da batik bat eta emaniko erabileren artean etxebizitza sozialak eraikitzea nabarmendu da. Horretarako, hitzarmen eta akordio ezberdinak egin dira bi administrazioen artean eta konpromiso ezberdinak hartu dira urteotan.

Konpromiso horietako bat, D lursaila etxebizitza sozialetarako baliatzea, gauzatu gabe dago oraindik. Duela 10 urte baino gehiago zuloa egin zen eraikuntzaren lehen fase gisa eta ez da hurrengo urratsik egon. Lurrazpiko urek zuloa bete zuten eta ordutik hainbat kexa egin dituzte inguruko biztanleek eta ber-bertan den ospitaleko erabiltzaileek arratoiak, eltxoak eta abarrak direla eta. Udalak ere errekerimendu ugari egin dizkio Visesari, animalia izurrite hauez gain eremuaren atea konpontzeko eskatuz edo azkenak landare inbaditzaileen kontrolaren inguruan.

Hau horrela izanik, Arrasateko EH BILDUKo legebiltzarreko EH BILDUKen taldearekin harremanetan jarri da. Horri esker Maider Otamendi EH BILDUKo legebiltzarkide eta bozeramale ordeak informazio eskaera egin dio Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde antolaketa eta Etxebizitza sailburuari Arrasateko Zerrajera eremuko D lursailari buruz. Ondorengo informazioa eskatu da.

- 1.-Badu asmorik Eusko Jaurlaritzak orube horretan agindutako etxebizitza sozialak egiteko?
- 2.-Hala bada:
 - ze motatako etxebizitza sozialak egingo dira?
 - zein epe aurreikusten dituzue asmo horiek gauzatzeko?
- 3.-Zein den behar kuantifikatua etxebizitza eskubidea gauzatzeko Arrasaten eta inguruko herrietan?
- 4.- Zenbat pertsona daude Etxebiden izena emanda, bai erosteko edo baita alokairurako, Arrasaten eta inguruko herrietan?

Arrasateko EH BILDUK espero duena da Jaurlaritzak gaia esku artean hartzea, ez baita onargarria egoera luzatu den moduan luzatu izana. Horrez gain, Jaurlaritzaren bidez jakin nahi genuke zein den ere etxebizitza beharren egoera Arrasaten, ostean bai Legebiltzarrean bai Udalean behar diren ekimenak aurrea eroateko etxebizitza eskubidea gauzatu dadin.